



Getxo
bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica



INTERPRETAZIO ZENTRO, GIDARI ETA BIDAIA AGENTZIEN MAHAIA

2021eko irailaren 17

GAI ZERRENDA:

1. Sektorearen gaur egungo egoeraren azterketa.
2. Gai hauekin zerikusia duen informazioa:
 - a) Online prestakuntzen egutegia
 - b) "Familia Turismo Programa" Produktu Kluba.
 - c) Getxo Bono 2021: kanpainari buruzko datuak.
 - d) Bertako kontsumoaren sentsibilizazio eta sustapen kanpaina.
 - e) Dinamizazio laguntzak 2021
 - f) Covid-19 ezohiko laguntzak
 - g) Kontrataziorako laguntzak 2021.
 - h) Batuz sistema.
3. "Getxo Bihotzetik" proiektua.
4. Beste ideia eta proposamen batzuk.
5. Galderak, iradokizunak eta bestelakoak.
6. Hurrengo urratsak.

BILDUTAKOAK: (% 27)

DEITUTAKOAK		BERTARATUTAKOAK	EZ ETORTZEAK	
			Justifikatuta	Ez justifikatuta
Smartin Bilbao	Saioa Martin		X	
Wilextours	Pablo Perez		X	
Go Basquing	Iñigo García Valenzuela	X		
Geotxiki	Aintzane Goldffard			X
Iparraldeko Ordezkaría. Tcas	Josu Arbeytua			X
Sektoreko Ordezkaría + El Transbordador de Vizcaya, SL	Ainhoa Sarriegi		X	
Getxo Tours	Unai Celaá			X
MICE Design	Virginia Pérez	X		
Cristina Laiseca Ordezkaría	Cristina Laiseca			X
Bilbao Food Safari	Oihana Oribe		X	



Getxo
bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

Galerías Punta Begoña Fundazioa	María Peraita	X		
Getxoko Udala - Ekonomia Sust. Arloa	Mirene Zabalgogezkoa	X		
	Sonia Urdiain	X		

EDUKIAK:

1. Bertaratutakoak agurtu eta sektorearen gaur egungo egoera aztertu.

Bilerara bertaratutakoak agurtu eta aurkeztu ditugu. Gero, eztabaida txiki bat egin dugu taldean, udako denboraldiari eta sektorearen aurreikuspeni buruz hitz egiteko, egoera kontuan hartuta.

Ikuspuntu teknikitik, turismo-bulegotik lortutako datuak kontuan hartuz, oraindik 2019. urtean lortutako emaitzetara ez garela heldu ondorioztatu dugu. Hala ere, nabarmen hobetu da bisitarien kopurua. Alde batetik, turisten % 15 atzerritarrak izan dira (2019an gutxi gorabehera % 30 zen). Turista atzerritar horiek, bakarrik edota familian nagusiki etorri dira. Bestalde, nabarmen handitu da Estatuko bidaiarien kopurua (% 71 guztira), eta horrek asko lagundu du turismo-sektorea berreskuratzen.

Beste erakunde batzuen (BFA eta Eusko Jaurlaritza) itxaropenei dagokienez, urritik aurrera airetiko loturak berriro ireki ziren, eta beraz, hemendik gutxira nazioarteko turismoa handituko dela espero da.

Iñigo García-Valenzuelak (Go Basquing) dio bere sektorean oraindik ez dela gertatu berreskuratze hori. Egia da Covid-arengatik atzeratu ziren zenbait eskaera berriro egin direla, taldeentzat, baina zoritxarrez ez dago eskaera berririk.

Virginia Pérezek (Mice Design) dio ez dela talderik heltzen, baina online ekitaldiez gain, ikus-entzunezko edukiak ere sortzen ari dira, beren burua baliabide digitaletan erakusten laguntzeko enpresei.

María Peraitak (Punta Begoña Fundazioa) dio ondarearen esparruan eskaera gora egiten ari dela. Zoritxarrez, gaur egun, ez dago bisita-eskaintzarik eskaintzeko.

Bisitak berriro aktibatu nahi dituztela dio, hezkuntzarekin lotutakoekin hasiz. Punta Begoña galeriak ikusarazteko erabiltzen joan izan diren bide digitalak azaldu ditu. Esparru horiek aztertzen joan beharko dute, eta ondarearen errealitate berriro egokitu.



Getxo
bizi ezazu

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

2. Gai hauekin zerikusia duen informazioa:

a) ONLINE PRESTAKUNTZAN EGUTEGIA

Bertaratutakoei jakinarazi zaie online eta doan diren prestakuntza berriak daudela. Interesgarriak dira sektorearen jarduera jaisten hasten den sasoi honetan hobetzen eta hazten jarraitzeko (Ikusi 4-5 diapositiba).

Bereziki aipatu dute prestakuntza horiek guztiak **Kode Etikoa** programaren barruan daude, **eta beraz, urte amaieran lotutako baldintzen gaineko emaitzen barruan puntuatzen dutela**. Hori dela eta, inor programa honetan parte hartzen ari bada, egindako ikastaroak jakinaraztearen garrantzia aipatu da.

Bestalde, Astearte Komertzialak jarduera berreskuratu da. Salmentari berriaz erreparatzen dioten saio ziklo bat da. **Taldeko hausnarketa eta banakako lana, aholkularitza-zerbitzuek lagunduta. Hurrengo saioetak datak erakutsi dituzte (Ikusi 6. diapositiba).**

Informazio gehiagorako:

<https://www.getxo.eus/es/getxolan/noticias/544>

b) "FAMILIA TURISMO PROGRAMA" PRODUKTU KLUBA.

Udaleko teknikariak azaldu du duela 3 urte, BasqueTour-ek "Familia Turismo Programa" moduko Produktu Kluba bat martxan jarri zuela, eta "Surfing" edo "Euskadi Gastronomika" Produktu Klubaren antzekoa dela.

Gaur egungo proiektuaren asmoa da zer enpresak bat egin dezaketen familien beharrekin, batera eskaini ahal izateko. Garrantzitsua da azpimarratzea jarduera horiek ezin direla izan "umeentzat" bakarrik; "familiar" gozatzeko dira.

Proiektuan parte har dezakeen enpresa motari buruzko xehetasuna eman da, baita haren barruan egoteko aztertzen diren alderdiak (hautazko zenbait baldintza daude; beste batzuk, nahitaez bete behar dira) eta ekartzen dituen onurak (ikusi xehetasuna 7-8 diapositiban) ere.

Izena emateko ematea irailaren 30ean amaitu zen, baina urriaren 10era arte luzatu da. Helbide elektroniko hauetara idatzi beharko da:

turismofamiliar@getxo.eus
turismofamiliarra@getxo.eus

Xedea da, nahi duen enpresak behin izena emanda, urritik otsailera hastea lanean haiekin, 2022ko Aste Santuari begira prest egoteko.



Getxo
bizi ezazu

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

Enpresei, besteak beste, banakako aholkularitza zerbitzua emango zaie, diagnostikoa egingo zaie Klubaren baldintzak zenbateraino betetzen dituzten jakiteko, hobekuntza-plan pertsonalizatua emango zaie, beharrezkoak diren hobekuntzak ezartzen joan daitezen, eta behar dutenerako lagunduko zaie.

Informazio gehiagorako: [Hurrekin egiteko planak Euskadin - Familia turismoa Euskadin](#)

c) GETXO BONO 2021: KANPAINARI BURUZKO DATUAK.

Jasotako datuak erakutsi dituzte Mahaian, 2021/09/06ko datarekin (Ikusi 9-10-11 diapositibak).

Enpresek zalantzak dituzte, ez dute argi ikusten mota horretako tresnak beren enpresetan aplikatu daitezkeenik.

Hala ere, datorren urtean kanpaina errepikatzen bada, sektoreari jakinaraziko diote.

d) BERTAKO KONTSUMOAREN SENTSIBILIZAZIO ETA SUSTAPEN KANPAINA.

Gogoratu dute kanpaina hori, Enpresen Aholku Foroak eskatuta sortu dela, eta haren xede nagusia udalerriko establezimendu eta zerbitzuen kontsumoa sustatzea dela. Goiburua "Garrantzitsuena beti eskura" da. Kanpaina horrek, bi txanda zituen, abiatzeko edo errefortzu gisa: bata, maiatza eta ekaina bitartean; bestea, urritik azarora. Horrenbestez, urritik aurrera publizitate-euskarriak banatuko dizkiete, informazioa parteka dezaten.

Hori horrela, lortutako datuen emaitzak erakutsi dizkiete bertaratutakoei (Ikusi xehetasuna 12. diapositiban). Bestalde, eskualde mailan izandako eragina erakutsi dute: Getxo, Leioa, Erandio, Sopela, Berango, Plentzia, Barrika, Gorniz eta Urduliz.

e) DINAMIZAZIO LAGUNTZAK 2021

Proiektuak zein uneko laguntza-lerroen esleipendunak erakutsi dira (Ikusi xehetasuna 13-14-15 diapositibetan). Bereziki interesgarriak dira sektorerako 3. eta 4. lerroak, eta datorren urteari begira, eskatzera animatu dituzte.

Halaber, lerro horien eskatzaileei gogorarazi zaie ez dutela itxaron behar urte amaierara arte laguntza justifikatzeko. Komeni da dagokion jarduera amaitutakoan egitea, horrela, diru-laguntzatik geratzen zatia kobratuko da (% 25).



f) COVID-19 EZOHIKO LAGUNTZAK

Covid-19 Ezohiko Laguntzei dagokienez, lehen atxikipen-aldiko (05/29 - 06/24) datuak hauek izan ziren:

- **257 eskaera:** 248 eman ziren, 324.680 € guztira, 6 ukatu ziren, eta 3 enpresak uko egin zioten.
- **Enpresa onuradunen profila:**
 - 173 enpresak **sektorearen ixtearengatik** eskatu zuten.
 - 75 enpresak **udalerraren itxiera perimetralarengatik** eskatu zuten.
- Dagokien **sektorearen** arabera:
 - Ostalaritza: 173 (% 69,8)
 - **Turismo-zerbitzuetako enpresak: 27 (% 10,9)**
 - Ostatuak: 5 (% 2)
 - Taxiak: 43 (% 17,3)
- **Izaera juridikoaren** arabera:
 - Pertsona fisikoak: 144 (% 58,1)
 - Ondasun-erkidegoak eta izaera juridikorik ez duten beste talde batzuk: 29 (% 11,7)
 - Pertsona juridikoak: 75 (% 30,2)

Bigarren aldia (05/11 – 06/30), **hirugarrenekoan eta gaur egungoan (09/01 – 09/15)** bezala, ez da eskaerarik jaso. Hala ere, laguntza hau urte amaierara arte indarrean egongo da, COVIDa dela eta gerta daitekeena kontuan hartuz.

Informazio laukia:

https://www.getxo.eus/DocsPublic/getxolan/AYUDAS COVID 2021/Web_Ficha Resumen Ayudas Covid 2021 Cast.pdf

g) KONTRATAZIORAKO LAGUNTZAK 2021.

Bestalde, mahaiari jakinarazi zaio Lanbideak, aipatutako laguntzak urtero ateratzen dituela, nahi duten udalei bi jarduketa-lerrorentzat bideratuko den dirua emateko helburuarekin:

- Udaletan laguntzeko langileak kontratatzea.
- Enpresei zuzendutako deialdi publikoa ateratzea, kontratuak diruz lagundu ahal izateko. **2021eko uztailaren 1etik abenduaren 31 BITARTEAN HASITAKO** kontratueterako.



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

Gaur egun, Udala Lanbideren ebazpenaren zain dago. Nolanahi ere, 2020ko laguntzaren baldintzen laburpen-koadroa eman da, 2021eko deialdian errepikatuko dena:

https://www.getxo.eus/DocsPublic/Ficha_Resumen_Ayudas_Contratacion_2020_Cast.pdf

h) BATUZ SISTEMA.

Nobedade gisa, jakinarazi dute Foru Ogasunak nahitaez ezartzeko data luzatu duela, 2024ko urtarrilaren 1 arte. Hala ere, egokitzapena hori baino lehen egiten duten enpresek zerga-kenkariak jasoko dituzte, baina Foru Ogasunak ez du zehaztu oraindik zenbatekoak izango diren.

Horrez gain, Enpresen Aholku Foroan jorratu ziren eta, atzo, Kontraste Mahaian politikariei helarazi zitzaien eskaeretako bat izan zen enpresei zuzendutako laguntza-lerro bat ateratzeko aukera, aldaketa horrek sektoreetan ekarriko dituen inbertsio guztiei aurre egin ahal izateko. Udaleko teknikariak horren inguruan hartzen den erabakiaren zain daude.

Egokitzapen horretan lanean jarraitzeko, online informazio-jardunaldiak eskaintzen jarraituko dira. Bestalde, gero, banakako aholkularitza jasotzeko aukera ere aztertu da. Hauek izango dira hurrengo saioak:

- 09/29; 13:30etik 14:30era
- 11/09; 13:30etik 14:30era

Hemen jasoko dira izen-emateak: www.getxo.eus (gutxienez, jardunaldia hasi baino egun bat lehenago)

Batuz sistemari buruzko informazio gehiagorako: <https://www.batuz.eus/es>

- Software homologatuen zerrenda: <https://www.batuz.eus/es/registro-de-software>
- Borondatez ezartzeagatiko pizgarrien iragarkia: <https://urlchill.com/Zf9Je>.



Getxo

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

3. "GETXO BIHOTZETIK" PROIEKTUA.

Getxo Bihotzetik proiektua "GetxoEkinez!" ekimenean onartutako ezohiko proiektuetako bat dela, eta Sektore Mahaien eskaera batzuei erantzuten diela. Hauexek dira helburu nagusiak:

- ✓ Ostatu-gauak handitzea.
- ✓ MICE zerbitzuak eta baliabidea ezagutzera ematea Bilbo Handiko enpresei.
- ✓ Estatuko eta nazioarteko kalitate oneko talde berriak erakartzea Getxora.

Horretarako, lan-talde bat sortu zen, eta talde horretan, zerbitzuen hornitzailea eta ekimenak garantzen dituen sektorea bera da, Udalaren laguntzarekin. Taldea osatzen dute Virginia Pérezek, Mice Design-ekoak, eta Iñigo Garcia Valenzuelak, Go Basquing-ekoak.

Hauexek dira jarduketa-lerro nagusiak:

1.- *Definitzea nola aurkeztuko dugun geure burua eta zer erakarri nahi dugun*; Getxo markaren balioak identifikatuz, eta gure produktuak eta zerbitzuak posizionatzen laguntzen gaituzten "istorioak" sortuz. Parte hartuz eta sektoreko mahaiekin eta Getxoko enpresa-egitura osoarekin lan eginez.

2.- Nahi duten *enpresei* beren negozio-eredua edota zerbitzuak aztertzen *laguntzea*, hobetzeko arloak definituz tea produktu eta esperientzia berriak zehaztuz; edota jadanik daudenak MICE merkatuan saltzeko egokituz.

3.- *Online komunikazio eta komertzializazio kanpaina*, "istorio", zerbitzu edota produktu horiek zabaltzeko.

4.- *Alderantzizko komertzializazio-jardunaldiak* antolatzea: Fam-Trips (familiarizazio bidaiak) presentzialak (5) eta birtualak (10), enpresei eta interesa duten eragileei eskaintzaren berri emateko, hura erosi edota komertzializatu dezaketelako.

Orain arte egindako ekintzak (maiatzetik ekainera artekoak) eta egiteko daudenak (irailetik abendura) aztertzen dira (Ikusi xehetasuna 19-20-21 diapositiban). Argigarri gisa, bideo hau ikus daiteke:

Bertaratutakoak proiektuaren talde eragilearen barruan daudenez, gainerako sektore mahaietan proiektuari buruz jaso diren iritziak jakinarazi zaie.

Turismo-sektorearekin lotuta ez dauden zenbait enpresa (merkataritza, zerbitzu pertsonalak, ostalaritza arlokoak) errezeloekin agertu dira hasiera



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

batean, kostatzen zitzaizen ikustea euren burua horrelako proiektu batean...Hala ere, guztiz argigarria izan da fam horietako bati buruzko [laburpen-bideoa](#) erakustea.

Proiektuan edozein enpresak parte har dezakeela azpimarratu da, eta nahi duenak mezu elektroniko bat bidal dezakeela helbide honetara: visitgetxo@getxo.eus

Proiektua, berez, asmo handikoa da, eta hainbat ekintza proposatu dira urtea amaitu baino burutzeko. “Komunitatea sortzea” eta <Getxo Insiders> bolumena handitzea helburuak, hasiera batean espero zena baino denbora gehiago ematen ari dira...

Bestalde, 2022. urtean zalantzak daude. Ez arrazoizkotzat jotzen proiektua ixtea, baizik eta beste ekintza-plan bat sortzea, 2021. urtean gertatutakoa kontuan hartuz, enpresen behar eta aukerei egokitzen joanez, eta sortzen ari den komunitatea sustatuz.

4. Beste ideia eta proposamen batzuk.

Jakinarazi dute, une honetan, 2022. urterako aurrekontuak prestatzen ari direla Udala eta zenbait administrazio publiko, eta normalean urte hasieran ixten direla. Irailaren 13an, Kontraste Publikoko Mahaian, urte hasieran mahaietan aipatu ziren sektoreen eskaera eta behar asko helarazi ziren.

Getxo Bihotzetik proiektuarekin jarraitzeko eskaera alde batera utzita, sektorearen egoera orokorra hobetzeko landu daitekeen proposamenik edo gairik dagoen esan dezaten eskatu zaie sektoreko enpresei. Izan ere, orain da une egokia. Horretarako, helbide elektroniko bat eman zaie, ekarpenak hara bidal ditzaten:

museos.guias.agencias@getxo.eus

5. Galderak, iradokizunak eta bestelakoak:

Basquetour garatzen ari den Produktu Klub berri bati buruzko informazioa eskatu dute. Ez daukagu horren inguruko informaziorik, baina eskatuko dugula hitzeman dugu.



Getxo
bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

6. Hurrengo urratsak:

- Urriak 5: Enpresen Aholku Foroa. Sektoreko ordezkariak, sektore mahaietan jasotzen diren proposamenei lehentasuna emango diete. Interpretazio Zentro, Gidari eta Bidaia Agentzien Mahaiaren proposamenak hango ordezkariak, hots, Ainhoa Sarriegik azalduko ditu.

INTERPRETAZIO ZENTRO, GIDARI ETA BIDAIA AGENTZIEN ERABAKIAK (2021-09-17)

ERABAKIAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Bileraren aktaren zirriborroa bidaltzea	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
2. Sektorearen egoera hobetu edota hobeto kokatzen lagun dezaketen proposamenak bidaltzea, 2022. urtean gauzatzeko.	Sektoreko enpresak	Urriaren 30 baino lehen
3. Proposatutako programa eta ekimenei atxikitzea edota haietan izena ematea baloratzea	Sektoreko enpresak	Bileratik aurrera
4. "Garrantzitsuena beti eskura" kanpainaren inguruan sortutakoak bidaltzea enpresei	Zerbitzuko teknikariak	Urria baino lehen
5. "Getxo bihotzetik" proiektuari jarraipena ematea baloratzea, < Getxo Insiders> enpresa-sarearen hazkundea eta horien arteko sinergiak, produktu eta zerbitzu berrien sorrera bermatzeko.	Zerbitzuko teknikariak	2022